# LANPOSTUAREN PROFILA

| | |
|---|---|
| **IZENA** | Lurralde-lankidetzako proiektuen arduraduna – kudeatzailea |
| **TOKIA** | «Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea» Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen egoitza, HENDAIA (64700) - FRANTZIA |
| **FUNTZIO NAGUSIAK** | LLETren zuzendariaren aginduetara, Euroeskualdeko lankidetza-proiektuak kudeatuko ditu —bereziki mugaz haraindiko proiektuak—. Proiektu horiek LLETaren jardun-esparruetakoak izango dira, hala nola garraiokoak, ingurumenekoak eta lurralde antolamendukoak, baita Euroeskualdeko 2014-2020 Plan estrategikoan ageri direnak ere. |
| **JARDUEREN DESKRIBAPENA** | Euroeskualdeko 2014-2020 Plan Estrategikoan ageri diren esparruetako proiektuak dinamizatzea eta kudeatzea. Hain zuzen ere, honako arlo hauetan jardungo du: garraioa, mugaz haraindiko mugikortasuna, ingurumena, lurralde-antolakuntza eta beste zenbait esparru adierazgarri.<br>Europako, nazio-arloko eta eskualde-arloko politiken jarraipena, baita elkartutako sareek egiten dituzten jarduerena ere.<br>Euroeskualdeko lan-taldeen koordinazioa, sarean jartzea, dagokien eragile eta sektoreekiko harremana (jarraipen-txostenak idaztea, bilerak antolatzea, etab.).<br>Europako lurralde-lankidetzaren arloko (batez ere POCTEFAko) eta Europako bestelako proiektu-deialdietako proiektuak idaztea eta koordinatzea. |
| **BETEKIZUNAK** | Masterra, 1 edo 2<br>Gaztelania- zein frantsesa menperatzea (B2 maila) |

| | |
|---|---|
| **HAUEK BALORATUKO DIRA** | ● Ingelesa menperatzea eta aipamen berezia euskara menperatzera (B2 maila)<br>● Ikasketa espezializatuak (edo esperientzia zabala) honako arlo honetan: Europako politika eta haren finantziazio-iturriak, mugaz haraindiko lankidetza, mugaz haraindiko antolakuntza, lurralde-antolakuntza, politika publikoko proiektuen kudeaketa…<br>● Euroeskualdearen ingurunea ezagutzea<br>● Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako errealitate sozioekonomikoaren jarraipena/ezagutza, batez ere eskualde horien garraio-politikei dagokienez<br>● Antolatzeko eta hiru lurraldeetako bazkideak koordinatzeko gaitasuna<br>● Dinamizatzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna<br>● Proiektuak kudeatzeko gaitasuna |
| **LANALDIA** | Lanaldi osoa (astean 35 ordukoa) |
| **ORDAINKETA** | Soldata estatutuetan zein kalte-ordainen arauetan ezarritakoaren araberakoa izango da<br>*(Urteko soldata gordina 26.952 €-tik 33.804 €-ra bitartekoa izan daiteke)* |
| **HAUTAGAITZA (CV + motibazio-gutuna)** | “Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea LLETren zuzendariari” bidali behar zaio:<br>● E-mailez honako helbide honetara: marc.moulin@naen.eu<br>● Postaz, honako posta-helbide honetara:<br>GECT “Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre”<br>18, rue Leku Eder - 64 700 Hendaye |
| **EDOZEIN INFORMAZIO ESKATZEKO** | Informazio gehigarria eskatzeko, mesedez jar zaitezte harremanetan LLETren zuzendari Marc Moulin jaunarekin:<br>- tel.: 00 33 620 611 990<br>- e-maila: marc.moulin@naen.eu) |